

KA Topaketa#14
Co&Art
(Donostia)
Martxoak 6 Marzo (Igandea/Domingo) 17:00h

(Barkatu aktak berandu igotzeagatik, Stop War Festibalak denbora asko kendu digu jaialdiaren aurretik eta ondoren, Aste Santuan izan da.)

Topaketara joandako partaide berriak:

Txus (Sambatuak, perkusio taldea)
Juan (Sambatuak, perkusio taldea)
Zelex (Aktorea)
Zita Ayala (Argi koadroak)
Javi (argazkilaritza kreatiboa)
Hristo Donev (Musikaria, diseinatzailea)
Luca Grassi (Musika eta bideo laburrak)
Paul (filosofia, ikus-entzuneak)

Egoera orokorra komentatzen da:

- 300 partaide KA sortu eta urte 1 eta 6 hilabetera.

- 10 talde martxan eta era konstantean lan egiten (Web, 100KA, GazteKA, Stop War Festibala, Diseinua, Komunikazioa, KAzeta28 (Fanzine), Ikus-entzuneak, Plastika, Koordinazioa).

- Donostia 2016 Energia-Olatuak programak 20.160 euroko dirulaguntza eman digu 2016an zehar 100 ekimen antolatzeko (100KA). Honela plataforma ezagutarazi ahal izango dugu eta KA sarea handitu. Gainera, ekimen guztiak gure kriterioaren arabera antolatu ahal izango ditugu.

- Gipuzkoako Diputazioak , 3.675 euroko diru-laguntza emango digu. 2016ko ekimenetarako erabiliko dugu.

- Martxoa bukaeran Stop War Festibala ospatuko da. Programazio guztia hemen: www.stopwarfestibala.com

- Hilabete bakoitzeko 28. Egunean KA-ren Fanzinea ateratzen dugu (KAzeta28). 4 ale KA-ren web orrian daude. 16 minutuko erreportaje bat dugu, teaser bat...

- GazteKA, Esther Uriak zuzenduta, 2016ean aurrera eramaten ari da eta emanaldi artistiko batzuk izango ditu datozen hilabeteetan.
- Pixkanaka, KA-ko artisten ekimenak ikusarazten hasi gara eta guztien memoria bat sortu dugu. Web orrian ikusgai dago.
- Orokorrean, parte-hartze handiagoa aktibatzen saiatzen ari gara. Baita lan taldeetan ere.
- Informazio guztia web orrian duzue: www.kulturaalternatiboa.com. Beti bezala, edozein zalantza, proposamen, etab: info@kulturaalternatiboa.com.

Lan talde eta proiektuen egoera:

Lan talde eta proiektuen egoera komentatzen da:

Fanzine, 100KA, StopWar, GazteKA, Web, KA Zuzenean, Komunikazioa, Koordinazioa, Ikus-entzuneak, Plastika, Diseinua, Baimenak.

Batez ere, komunikazio taldea birplanteatu behar dela, bultzada bat eman.

Fanzine taldeak, autogestioaren bidea planteatzen du, fanzine-a paperean ere atera dadin.

Esther-ek GazteKA-n egiten ari direna komentatu du eta 100KA-ren barnean Maiatzean egingo diren emanaldiak ere komentatu ditu.

KA Zuzenean egiteko, Stop War pasa arte itxarotea erabakitzen da.

Gure arteko komunikazioa eta KA-ren figura administratiboa.

Gure arteko komunikazioaren gaia planteatzen da. Denak ados daude alde guztietatik, komunikazio honek errespetuzkoa izan behar duela. Hemendik, KA-ren figura administratiboaren gaia ateratzen da. Zalantza batzuk daude eta Xpressionk-en eskriturei buruzko informazioa eskatzen da. Xpressionk-k, plataforma modu administratiboan kudeatzen du. Xpressionk-ren aldetik (Jokin), komentatzen da Zuzendaritza Batzordeko kideen izenak, datu pribatuak direla eta ez dela komenigarria ezagutaraztea. Xpressionk, irabazi asmorik gabeko elkarte kultural bat da.

Hortaz, Rakelek figura administratiboa aldatzearen aldeko eta kontrako arrazoiak azaltzeko prest aurkezten du bere burua, modu kolektibo batean zer egin erabaki dadin informazio guztia izanik eta alternatibak ezagutuz.

Guztioi konponbide onena iruditzen zaigu. Aurkezpen hau, Apirilaren 24ean izango da, lekua zehazteke, eta denei informatuko zaie.

Soinu ekipoa

Gaur egun, Igor-ek uzten digu ekimenetarako ekipoa. Ekipo propioa eskuratzeko aldeko eta kontrako arrazoiak begiratzen dira. Hurrengo topaketarako David Cuadradok informazio zehatzagoa eramatea adosten da, erabakia hobeto hartzeko.

Andoaingo Festibala (KA Zumea Fest)

Jaialdi honen helburua, Ekainaren 4ean Andoaingo Zumea Plazan ekimen batzuk antolatzea da (programazioko 6 ordu). Jaialdiaren izena KA Zumea Fest izango da eta KA antolakuntzan egongo da bertako ostalariekin batera. Ostalariak, eszenatokiaz, baimenez, ekipoaz eta talde nagusiaz (Hendrix-en tributua) arduratuko dira. KA-k aldiz eguerditik hasita arratsalde osoko ekintzak programatuko ditu. Laster izango dugu jaialdiari buruzko informazio gehiago, momentu honetan tramiteak egiten ari dira, udaletxeak behin betiko baimena eman dezan.

Beste gai batzuk:

Kontadoreak:

Bidebietako Kontadoreekin bilera izan zen eta espazio bat dugu libre gure ekimenak egiteko. Eszenatoki bat dute, ekipoa...

GAZE.Gipuzkoa Gazte Ekinzale Proiektua:

GAZE-rekin proiektu bat dugu martxan, Maiatzaren 6ean Jaialdi bat antolatzea eguerdiko 12:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte Donostiako Unibertsitateetako Aularioan, Antzerki-Foro, kontzertuak... egongo dira. Laster gehiago komentatuko dugu honen inguruan.

Donostiaren diru-laguntzak:

Donostiako Udalari diru-laguntzak eskatu zaizkio (partehartzea eta Donostia Kultura)

Olatu Talka:

Olatu Talkan partehartzeari buruz hitz egiten da. Azkenean, egitekotan modu alternatiboan eta kritikoa, aste bat beranduago eta baimen gabe egingo litzatekeela erabakitzen da, 2015eko ResaKA bezala.

Whatsapp (ekimen Gunea):

Whatsapp talde bat sortzea komentatzen da, geratzeko, ekimenak ikusteko...

Hausnarketa Gunea:

Hausnarketa guneak martxan jarraitzen duela gogorarazten da, edozein gauzaren inguruan pentsatzeko.

KA web dossierra:

Web orrian dossierra eskuragarri dagoela ere gogorarazten da.

KA Kontuak:

Laburpenak aurrerago zehaztuko dira, Stop War-rekin oso lanpetuta ibili gara eta! ;))

Kobroak:

Donostia 2016: 12.096 euro (%60)

Diputazioa: 3.675 (Osoa)

Gastuak (aktetan ziurtagiri guztiak barneratuko dira):

Fanzine: 205,09

Roll Up KA 1: 82,28

Roll Up KA 2: 57,51

Web orriko gastuak: Zehazteko

GazteKA materialaren gastuak: 75

Proiektorea: 697,5

2 disko gogor: 180,64

3 KA banderola: 266,20

100KA ekintzak: Aktetan zehaztuko dugu

Etorkizuneko gastuak:

- KA Zuzenean (Diputazioaren diruarekin)
- Material plastikoak (Pinturak, Panelak...)
- Kamisetak? Tangak? Txapak?
- 100KA kartelak (Hilabetekoak bakarrik)
- Gai eszenikoetarako behar den material teknikoa?